

# Musulmanak Europarantz

*En verdad, no son una novedad del todo extraña las nuevas presencias de comunidades musulmanas en Europa. Su geografía es muy plural, en origen y destino. Lo que durante siglos ha sido muy real, pero circunscrito (por ejemplo a los Balcanes), hoy se nos presenta más disperso y de orígenes étnico-culturales variados. Emigrantes y sus descendientes musulmanes darán cuerpo a una Europa también islámica.*

Islamak Europarantz lehenengo lurraldeak irabazi zituenetik (al-Andalus, 711-1492), urratsez urrats zenbait eskualde berri eskuratzen joan zen, Kalifa-herri ezberdinekin (Damasko, Bagdad, Kordoba, Inperio otomandarra): Sizilia (827-1091), Bizantzio (1453), esate baterako.

XIV. mendeko bigarren erdi-alditik hasita Balkanetako gerrak eta konkistak izan ziren garaiko ekimen otomandar deigarrienak (erlijio emaitza ezberdinekin). XVI. mendea gatazka bortitzekoa izan zen Europa kristauarentzat: Vienako setioak, 1529, 1663; Alpujarretako gerra, 1568; Lepantoko gudua, 1571). Honek guztiak aldakuntza erlijiosoak ekarri zituen, batzuetan gehiago musulmanak sortuz ere bai (Kosovo, Bosnia, Hertzegovina).

## Europa islamiar berria

Aurreko mendeetako Islamaren zabalkuntza ekimen militarrek eta ondoko Kalifa-herrien politikak bideratu eta sustatua izan baldin bazen, XX-XXI. mendeetan bestelako sarbideak izan ditu Islamak Europarantz.

Europarantz bigarren kolonialismo handiak, hainbat lurralde islamiar bereganatu zituen kolonia edo babestu gisara, batzuek I Gerrate

Handiaren aurretik eta gehienak ondoren: Frantziak Siria, Jordania, Libano, Aljeria, Tunisia, Maroko (Espainiarekin batera); Ingalaterrak India/Pakistan, Irak, Jordania eta Egipto (...-1952), eta Herbehereek Indonesia beren eskumenean izan zituzten.

Hauek guztiek Europako interes eta botereak (kristauak omen zirenak) musulmanen artera eraman zituzten, gehienetan eta neurriren batean behintzat, hizkuntzak ere pasatzen zizkietela: geroztik, hizkuntza ingelesak eta frantsesak anglofonia eta frankofonia "musulmanak" dituzte, eta eskola koloniala beroriek sustatu eta indartzeko.

Islamaren barruko erreformismo moderno zaleak zer pentsa aski aurkitu zuen egoera berrian (XIX. mendetik hasita). Horren fruitu izan dira gero Estatu musulman laikoak, herritar guztien berdintasun juridikoa ezarri zutenak (egiaz edo itxuraz, diktadura nahiz demokrazia izan direnak).

Herrialde kolonizatu haiek dira XX. mendeko bigarren erdi-aldian Europara emigratzaile politiko-ekonomikoak bideratu zituztenak, eta orain berrikitan miseriatik eta gerratik ihesi etorri behar izan dutenak. Musulmanak hemen daude, eta hemen geratuko dira asko eta asko.



Europa islamiar berrituak eta islamiartasun berrituak, bien eta guztien arteko elkarrizketan eta laiktasun libre errespetagarri batean asmatu beharko dute hurrengo Europa nola eraiki, gerrarik gabe eta bakean.

### **Elkarrizketaren arazoak**

Kolonialismoaren esperientziak balio ezezagunak erakutsi zizkien herri musulmanei: Europaren modernitatea, kolonizatuen ahuldadea eta pobrezia, egitura politikoak eraberritu eta erlijiotasun-moldea eguneratu beharra.

Islamaren ideologia teologiko-politiko zaharkiturik ageri zaie herrialde haietako intelektual eta politikariei, Koranaren exegesitik hasi eta Zuzenbide islamiarreraino (saria). Erdi Aroan sekulako kultura distiratsua izandakoa modernitatean ez da batere emankorra gertatzen herrien aitzina-mendurako. Ahul ageri da garai bateko jakitea, erronka berriei erantzun ahal izateko.

Europak bere kultura erlijioso modernoa irabazteko, gerra bake-akordio erlijiosoa pasatu behar izan zituen (XVI-XVII. mendeetan), eta hiru Iraultza nagusi (ingelesa, 1688; estatubatuarra, 1773; frantsesa, 1789),aldi berean pentsamendu politikoa berritzen zela; bien bitartean, Zientzia enpirikoak nagusituz joan dira.

Bestalde, gizarte europarrean pentsamendu libre kritikoari bide eman zaio, gizarte

zibilean bezala Eliza kristauetan (protestanteetan, eta hein batean katolikoan), emaitza teoriko eta praktikoekin (hezkuntzaren erreformak, esate baterako). Jada, Europak molde ezberdineko laizitateak ditu. Hori dena ezin izan da egin krisi tenkatuak bizi gabe, eta ez guztiz erabat (gogora Iraultza Frantsesaren balio kristauak onartzea zenbat kostatu zen XIX. mendean, eta gero).

Islama, bere milioika sinestunekin Europa oraindano kristau honetan bat-batean edo belaunaldi berriekin gizarte europarra beste modu batekoa izango denean, hemengo balio erlijioso pertsonalak eta Erlijio erakundetuen elkarbizitza ez dira errazak izango berehalako batean, tamaina handi eta konplexuko gertaera baita topaketa hori.

Pentsa daiteke herrialde musulmanetan inoiz entseatu den erreformismo zaharretik baino (gogora Muhammad Abduh, 1849-1905) egingarriago ere izan daitekeela Europan bertako Islamaren baitatik ageri zaizkigun gogoeta eta proposamen berriak.

Gaur egun, etorkinen arteko musulmanek izaera eta egoera ezberdinak dituztela esan izan da: badaude "asimilatuak", hau da, erabat bertakotu direnak, bertako ogibide eta biziera jaso lortutako gutxi batzuk. Bigarren, beren bizitza arrunta europartu dutenak, gehiengo handi bat. Azkenik, inguruko bizitzaren eta balioen aurka erreboltatuak.

**Joseba Intxausti**